



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	MUSIKA	Zikloa / Maila	DBH 3
Irakasleak	Almudena Martínez	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1. Musiakak ideiak, sentimenduak eta bizipenak helarazi eta adierazteko eskaintzen dituen aukerak ulertzea, era askotako musika-adierazpenak errespetatu, ulertu eta estimatzeko gaitasuna indartuz</p> <p>2. Musikaren gizarte-eginkizunen eta erabilpenen berri eta beste hizkuntza artistikoekin, jakintza-arloekin eta, horrez gainera, ikus-entzunezko hedabideekin eta komunikabideekin dituen loturen berri izatea</p> <p>3. Estilo, genero, joera eta kultura askotako musika-lanek erabiltzen dituzten tekniken, baliabideen eta konbentzioen berri izan eta aztertzea.</p> <p>4. Ikus-entzunezko hedabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien berri izan eta erabiltzen jakitea bai musika sortzeko, bai norbere kabuz ikasteko eta bai musikaz gozatzeko</p> <p>5. Gure inguruan musiak eta soinuak dituzten eginkizunak eta erabilpenak zentzu kritikoarekin aztertzea, erabilpen horiekin giza jarduerak sortarazten dituen eraldaketek eta soinu-paisaietan duen eraginaz gogoeta eginez</p> <p>6. Adierazpideak berritzen eta gordetzen laguntzeko, Euskal Herriko zein beste herri batzuetako kultura-ondarearen arte- eta musika-adierazpenen berri izatea eta horiek aintzat hartzea</p> <p>7. Isiltasunak duen garrantzia baloratzea</p> <p>8. Musika ezagutzeko eta hartaz gozatzeko, prozesu musikalak eta hitz egokiak erabiltzen ikastea</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Hainbat jatorriko musiak bereizten jakitea eta aztertzea, musika horien sorkuntzan izan diren irizpideak aintzat hartuz, eta irizpide horiek erreferente estetiko berri gisa erabiliz.<ol style="list-style-type: none">1.1. Aurkezpenaren ondoren entzundako musika-lanaren alderdi garrantzitsuak zein diren esaten jakin.1.2. Lan baten aurkezpenean azaldutako oinarrizko ideiak laburbildu.1.3. Musika-lan batean kontrajartzen diren alderdiak bereizi.1.4. Teknika eta estiloak bereizi.1.5. Musika-lan berberaren interpretazio-ezberdintasunen ondoriozko interpretazioak alderatu.1.6. Musika-lan bat aintzat hartzean aurretiaz dakizkien jakintzak behar bezala baliatu.1.7. Lantzen ari diren obra artistikoa arretaz entzun.1.8. Iritzia emateko obraren xehetasun musikalei buruzko argudioak erabili.1.9. Iritzia hitzez adieraztean koherentzia argudiatu eta adierazpen-maila eman beharreko mezuarekin bat etor dadin saiatu.1.10. Taldeka interpretatu eta dantzak sortu.2. Musikaren eginkizunak eta erabilerak garaiaren eta tokiaren arabera kulturekin lotzea, obrak ulertzeko entzute eta analisisirako teknika eta metodo jakinak erabiliz.<ol style="list-style-type: none">2.1. Musikaren gizarte-funtzioak zein diren jakin.2.2. Jasotako musikazko mezuen helburua interpretatu.2.3. Musika bilatzeko haren erabilera kontuan izan.2.4. Jasotako musikazko mezuen esanahia antzeman.2.5. Obra baten esanahia bilatzeko musikaren jatorrizko testuingurura jo.2.6. Musika baten askotariko erabilerak aztertu, erabiltzen den tokiaren arabera.2.7. Entzun edo interpretatu beharreko musika-lana denboran eta espazioan kokatu.2.8. Garai ezberdinetako musika-lanen erabilera eta eginkizunen artean analogiak ezarri.2.9. Norberaren eta beste herri batzuen kultura-ondarea ezagutzeko interesa erakutsi.2.10. Musika adierazpenak arretaz entzun.3. Informazio-iturriak autonomiaz kudeatzea, eta iturri horiek iritziak eta argudioak aberasteko erabiltzea.<ol style="list-style-type: none">3.1. Musika-lanean jarraitu beharreko pausuak behar bezala antolatu.3.2. Lan artistikoan egin beharreko esku-hartzeak antolatu.3.3. Lana hasi aurretik, egin beharreko jardueraren gainean gogoeta eta plangintza egin.3.4. Arazoak hauteman eta konponbideak bilatu.3.5. Musika-ekoizpenean behar diren moldaketak egiteko baliabideak izan.



	<p>3.6. Informazio-iturriak autonomiaz aukeratu.</p> <p>3.7. Premiazko dokumentazioa bilatu eta gordetzeko euskarri bat baino gehiago erabili.</p> <p>3.8. Ikasketa-prozesuan jarrera kritiko eta eraikitzailea izan.</p> <p>3.9. Informazio jakin bat erabili ala ez erabakitzeak irizpide egokiak erabili.</p> <p>3.10. Gerora erabiltzeko datuen bilketari eta gordetzeari behar den besteko garrantzia eman.</p> <p>3.11. Askotariko informazio-bideekiko interesa erakutsi</p> <p>4. Ikus-entzunezko baliabideek eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ematen dituzten bitartekoak erabiltzea, musika-ekoizpena eta musika-adierazpena aberastuz.</p> <p>4.1. Informazioa biltzeko ikus-entzunezko baliabideak autonomiaz erabili</p> <p>4.2. Musika-ekoizpena aberasteko informazioaren teknologiak erabili.</p> <p>4.3. Bitarteko bat baino gehiagoren bidez lortutako informazioa modu egokian erabili eta antolatu.</p> <p>4.4. Norbere adierazkortasun musikala aberasteko teknologiak ematen dituen aukerak erabili.</p> <p>4.5. Teknologia erabiliz, musika bidezko komunikazio-modu berriak saiatu.</p> <p>4.6. Musika-lanei irizpide estetikoak aplikatu.</p> <p>4.7. Asmatutako musika-lanetan sartzeko soinu-efektuak sortu.</p> <p>4.8. Konposiziorako osagai gisa grabaketa erabiltzen duen musikarekiko interesa erakutsi.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

(denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1.ebaluazioa

1. Hotsaren ezaugarriak eta bere irudikapena musikan
2. Kantu Gregoriarra
3. Berpizkundea

2.ebaluazioa

4. Erdi Aro eta Berpizkundeko musika tresnak
5. Barrokoa. Operaren sorrera eta bilakaera
6. Agate Deunaren ohiturak Euskal Herrian

3.ebaluazioa

7. Orkestra. Musika tresnen sailkapena eta kokapena.
8. Musika Klasizismoan
9. Ahotsa eta kantua

METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Erabiliko dugun metodologia aktiboa eta parte hartzeko izango da.



Orff musika tresnekin, boomwhackeresekin, txirularekin, ahotsarekin, gorputzarekin ariketa erritmikoak eta melodikoak landu.

Musika eta estilo ezberdinak entzun, iruzkinak egin, ikasi interpretatzen eta analizatu.

Dantzak taldeka landuko dituzte.

Tics tresnak landuko dituzte: Popplet, edugloster, Prezzi... (Hirugarren ebaluaketan "Orkestra. Musika tresnen sailkapena eta kokapen gaia jorratuko dute tresna hauen bidez)

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko

probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]

Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Kontuan izanda gure ikasleak entzule eta ekoizle izango direla, eguneroko lana eta partehartzea oso garrantzitsua izango da. Ikaslearen liburua eta koadernoak, lanak, ariketak, zuzenketak, laburpenak, entzunaldiak eta interpretazioak (kantagintza, dantza eta musika tresnak erabiltzean) ebaluazio tresnak bihurtuko dira.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

Ebaluaketa bakoitzean azterketa bat egongo da **4 puntu** balio izango duena. Azterketak eredu desberdinetakoak izan daitezke (Test modukoak, galdera luzeak, laburrak, gaiak garatu....) .

Horretaz gain, ebaluazioan zehar egindako ariketa praktikoko guztiak puntuatuko ditu irakasleak eta aintzat hartuko dira ebaluazioaren nota ipintzeko (**5 puntu**), hórrela banatuta: **Txirula 2,5. Polirritmiak, abestu, perkusio korporala... 2,5**

Klasean izandako jarrera (partehartzea, materiala, puntualitatea, etxerako lanak ekartzea...)(**1 puntu**).

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak,

antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekonstruzio-sistema...]

Ebaluaketa gainditu ez duten ikasleentzat froga desberdinak egongo dira, berreskuratu behar diren zatiak desberdinak direlako (teoria ala praktika).

-Azterketa teorikoa suspenditu ezker, berreskurapena egin beharko da.

-Ariketa praktikokoak ez gainditzekotan, berreskurapena ere egin beharko da.

Ebaluazio bat gainditzeak ez du suposatzen aurreko guztia gaindituta dagoenik.

Ohiko deialdiko nota ipintzeko, azterketaz gain, ikasleak kurtsoan zehar izandako garapena eta prozesu osoa begiratu da

Ebaluazio bat gainditzeko, derigorrezkoa da ebaluazio horretan agindutako lan guztiak aurkeztuta eta zuzenduta egotea.

EZOHIKO AZTERKETA: Gutxiengo edukiak ebaluatuko dira, bai arlo teorikoan zein praktikoan. Hori dela eta kalifikazioerik altuena "5" izango da.

Azterketa honetan, zati teoriko bat egongo da, partitura baten analisia eta ikasturtean egindako entzunaldi baten iruzkina egin beharko da.

PENDIENTEEN AZTERKETA: Ezohiko azterketa gainditu gabe geratuko balitz, mintegi buruak lan bat emango lioke ikasleari irailaren amaieran entregatzeko. Lana gainditu ezean, azterketa egin beharko luke urriaren amaieran.



Bai lana aurkezteko, zein azterketa egiteko, beste aukera bat egongo litzateke otsailean.

OHARRAK

ERABILIKO DIREN BALIABIDEAK:

-Irakasleak prestatutako apunteak

-Partitura desberdinak

-Ordenagailua, karioia, internet

-Musika tesna desberdinak: ORFF instrumentuak, teklatura, txirula...

-**Baliabide digitalak:** Audacity programa; ikasmus.netau.net; youtube; bloga